



UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK ZURE ENPRESAREN EKONOMIA ULERTZEA (1. EDIZIOA)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2025/2026

ARLOA: Gizarte eta Lege Zientziak

KREDITUAK: 1,5 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 0 €

ARDURADUN AKADEMIKOA: Javier Corral Lage

AURKEZPENA

Ikastaroaren deskribapen orokorra "Zure Enpresaren Ekonomia Ulertu" unibertsitate hedakuntzako irakaskuntzak enpresa ingurunean gero eta agerikoagoa den behar bati erantzuteko sortu da: finantza prestakuntzarik izan gabe ere, enpresaren informazio ekonomiko eta kontablea ulertzea eta erabaki hobeak hartzea. Ziurgabetasun ekonomikoak, lehia handiak eta finantzaketa sarbidearen zailtasunek testuinguru honetan, funtsezkoa da enpresetako arduradunek beren negozioaren datu ekonomikoak interpretatzeko gaitasuna izatea.

Ikastaroak ikuspegi argia, praktikoa eta progresiboa eskaintzen du, bereziki ETE eta mikroenpresen errealitatean oinarrituta.

Bost modulutan egituratzen da, azalpen teorikoak, benetako adibideak eta ariketa aplikatuak uztartuz. Prestakuntza hau Basquefikek finantzatzen du, eta Basquefik eta CEBEK dira erakunde laguntzaileak; horrek ikastaroaren izaera praktikoa eta Euskadiko enpresa eta finantza ekosistemarekiko lotura indartzen ditu. Helburuak eta ikastaroaren filosofia

Ikastaroaren helburu nagusia da finantza prestakuntzarik gabeko pertsonen beren enpresaren ekonomia ulertzeko tresnak ematea, oinarritzko egoera orri eta emaitza kontuak interpretatuz, kostuak aztertuz, egoera ekonomiko finantzarioa baloratuz eta eskuragarri dauden finantzaketa bide nagusiak ezagutzuz.

Ikastaroaren filosofia lau printzipiotan oinarritzen da:



- Irigarritasuna: hizkera argia eta ulertteraza, beharrezkoak ez diren kontzeptu konplexurik gabe.
- Aplikazio praktikoa: kasu errealak eta ariketa gidatuak.
- Erabakiak hartzera bideratutako ikuspegia: kontabilitatea kudeaketarako tresna gisa.
- Tokiko errealitatearekiko lotura: Euskadiko finantza , inbertsio eta laguntza ekosistemaren ezagutza.

Intereseko gaiak eta landuko diren arloak

Ikastaroan zehar honako arlo nagusiak landuko dira:

- Enpresaren jarduera ekonomikoaren erregistroa eta ulermena.
- Ondarearen egitura eta kontabilitate zikloaren oinarriak.
- Balantzea eta emaitzen kontua interpretatzea.
- ETE baten kontuetan alerta seinaleak identifikatzea.
- Kostu kontabilitatearen oinarriko kontzeptuak eta marjinak.
- Kudeaketarako analisi ekonomiko finantzarioa: likidezia, kaudimena eta errentagarritasuna.
- Enpresa baten egoera ekonomikoaren oinarriko diagnostikoa.
- Euskadin eskuragarri dauden finantzaketa aukera publiko eta pribatuak ezagutzea.

ZURE BILA GABILTZA

Ikastaro hau zuretzat da, baldin eta...

- ETE edo mikroenpresa bat gidatzen baduzu eta zure enpresaren zenbakiak benetan zer adierazten duten ulertu nahi baduzu.
- Erabaki estrategikoak hartzen badituzu eta oinarri ekonomikoa sendotu nahi baduzu.
- Finantza prestakuntzarik ez baduzu, baina balantzeak, emaitzak eta kostuak interpretatzeko beharra sentitzen baduzu.
- Aholkularitza enprekin, bankuekin edo administrazioarekin harremanetan bazaude eta autonomia eta konfiantza handigoz aritu nahi baduzu.
- Zure enpresaren likidezia, errentagarritasuna edo zorpetzea kezkatzen baduzu eta egoera aztertzeke tresna praktikokoak nahi badituzu.
- Euskadin ETEentzat dauden finantzaketa aukerak (publikoak zein pribatuak) ezagutu nahi badituzu.



Ikastaro honen helburua ez da aditu finantzario bihurtzea, baizik eta zure enpresaren ekonomia ulertzeko oinarriak ematea, informazioaren kontrola handitzea eta erabakiak modu seguruagoan hartzea. Prestakuntza praktikoa, hurbila eta enpresa txikien eguneroko errealitatera egokitua.

IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaroaren xede diren arlo profesionalak

Ikastaro hau enpresa kudeaketa eta zuzendaritza arloan diharduten pertsoneri zuzenduta dago, bereziki ETE eta mikroenpresen testuinguruan, non jarduera ekonomikoa ulertzea funtsezkoa den eguneroko erabakiak hartzeko.

Bere helburua da honako profil hauetan diharduten pertsonen gaitasunak sendotzea:

- ETE eta mikroenpresetako zuzendaritza eta gerentzia.
- Pertsona autonomoak eta ekintzaileak.
- Administrazio eta kudeaketa ekonomikoaren arduradunak.
- Erabakiak hartzeko ardura duten teknikariak eta bitarteko agintariak.
- Finantza erakundeekin, inbertitzaileekin edo administrazio publikoekin harremana duten profesionalak.

Lan irteerak eta profil profesionalaren hobekuntza Unibertsitate hedakuntzako irakaskuntza hau gainditzeak ez du lanbide araturako sarbiderik ematen, baina profil profesionala nabarmen indartzen du enpresa arloan.

Zehazki, ikastaroak honako aukerak eskaintzen ditu:

- Zuzendaritza eta kudeaketa postuetan jarduteko gaitasuna hobetzea, informazio kontablea interpretatzeko eta emaitza ekonomikoak aztertzekeo tresnak eskainiz.
- Ekintzaile eta autonomoen profila sendotzea, negozioaren kontrol ekonomikoa eta finantzaketa aukeren ezagutza hobetuz.
- Administrazio eta finantza arloetako gaitasunak zabaltzea, bereziki egitura txikiko erakundeetan.



- Finantza erakundeekin eta administrazioarekin elkarrizketa hobetzea, Basquefikek sustatutako enpresa finantzaketaren ekosistemarekin bat eginez.
- Hazkunde, inbertsio edo berrantolaketa prozesuetan parte hartzeko gaitasuna areagotzea, CEBEKe ordezkatzen duen enpresa ehunaren beharrei erantzunez.

Laburbilduz, ikastaro honek profil profesional autonomoagoak, informatuagoak eta erabaki ekonomiko sendoak hartzeko gai direnak garatzen laguntzen du, ETEen lehiakortasuna eta jasangarritasuna indartuz.

BALDINTZAK

EAEko ETEak eta/edo mikroerakundeak kudeatzen dituzten pertsonak.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2026/06/12 – 2026/06/26

EMATEKO TOKIA: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. -1.5 gela
Agirre Lehendakariaren Etorb. 83. 48015 Bilbao

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)

HELBIDEA: Agirre Lehendakariaren Etorb. 83. 48015 Bilbao

TELEFONOA: 94 601 3601

POSTA ELEKTRONIKOA: maitane.soldevilla@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.